




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

BESTEekin BATERA GARA

A SAIOA

Haurren katekesia parrokian

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"... bakoitzari bere
gaitasunaren arabera"
Mt 25, 15**

1. Helburu nagusia

- Jainkoak, zorioneko izan gaitezen eta mundu hobearen eraikuntzan Berarekin elkarlanean jardun dezagun, bizia oparitu digula aitortu.

2. Helburu bereziak

- Jainkoan eman dizkigun gaitasunez jabetu eta esker ona adierazi.
- Gure zentzumen eta gaitasunez baliatuz, besteekin eta Jainkoarekin hartu-emana izan dezakegula konturatu.
- Beharrian gorrian daudenak aurkitzeko eta beraiei laguntzeko Jesus beti dagoela prest aitortu.
- Egunez egun, gure gaitasunak garatuz, mundu hobea egiten lagun dezakegula ikusi.

3. Saioak

- A saioa, Haurren katekesia parrokan.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

A SAIOA, haurren katekesia parrokian



Motibazioa

- Garen guztia, gu geu, besteak eta mundu osoa zorioneko izateko zer egin dezakegun konturatu eta eskertu.



Azpimarrak

- Denok ditugu gaitasunak eta askotarikoak dira.
- Gure gaitasunak besteen esanetara jartzea dagokigu, denon artean mundu hobea egin ahal izateko.



Idea nagusiak

- Bizia sentituko dugu: Barneratzeko ariketa.
- Talentuen parabola. Mt 25, 14-30.
- Gure gaitasunekin, mundu hobea egingo dugu.



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jaingoaren Hitza, txatal argitzailea

Talentuen parabola, Mt 25, 14-30

"... bakoitzari bere gaitasunaren arabera"
Mt 25, 15



**Ikusteko,
klikatu irudian**

Bideoa



**Abesteko,
klikatu irudian**


Jarduera

- Barneratzeko ariketa: "Bidaia"
- Jardunbidea: "Talentudun" lorea



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Zer egin dugu?
- Zer sentitu dugu?
- Zer ikasi dugu?
- Eskerrak emango ditugu, abestuz, "Sobre todo gracias".





Ezinbesteko lagungarriak

- Barneratzeko ariketarako idazkia (l. eranskina)
- Musika lasaigarria (l. eranskina)
- Koloretako kartulinak
- Guraizeak
- Zatar-papera murala egiteko
- Errotuladoreak



Saiorako gida

Katekistarentzat ...

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- o 1. unea: agurra eta barneratzea (20 minutu). 1-2 urratsak.
- o 2. unea: Jainkoaren Hitza eta sakontzea (10 minutu). 3-4 urratsak.
- o 3. unea: adierazpena (15 minutu). 5-6 urratsak.
- o 4. unea: bilketa eta laburpena (10 minutu). 7-8 urratsak.



1. Unea. Agurra eta barneratzea



1 Urratsa. Saiolari hasiera emateko, irudikapenaren bidez, geure barnera "bidaia" egingo dugu, zenbateraino garen onak eta zenbat on dugun ikusteko (l. eranskinean azaltzen da ariketa nola egin).



2 Urratsa. Bidaia horretan sentitu eta aurkitu dugun guztia batera jarriko dugu:

- Lehenik eta behin, ikusi, usaindu, sentitu, entzun, ukitu... duguna gogoratuko dugu; guzti horrek gure bizileku den errealitatea ezagutzeko balio digu.
- Gero, urtxintxak gutariko bakoitzari esan diguna ere gogora ekarriko dugu.

Ozen esango dugu eta katekistak arbelean edo horman mural erara ipinita izango dugun zatar-paper handian idatziko du.



2. Unea. Jainkoaren Hitza eta sakontzea



3. Urratsa. Ondoren, arretaz entzungo dugu Jesusek bideo honetan esaten diguna. Talentuen parabola (Mt 25, 14-30) da.



**Ikusteko,
klikatu irudian**



4 Urratsa. Zalantzarik egonez gero, katekistak argitu egingo ditu eta, ondoren, parabolako talentuak arbel edo zatar-papperrean idatzi dituenak lotuko ditu. Parabolaren azken elkarriketak ere lagun dezake horretan.

Garrantzitsua da azpimarratzea:

- Gizon eta emakumeok gara garrantzitsuen Jainkoarentzat (honako gai hau aurrekoarekin lotzeko balio du).
- Denok ditugu talentuak, gaitasunak eta askotarikoak dira. Denak garrantzitsu, denak ezinbesteko.
- Ditugun talentu horiek Jainkoaren opari dira.
- Talentuak baliagarri izango badira, "martxan jarri" behar ditugu eta ez lurpean ezkutatu. Ezkutatu gero, ez dute ezertarako balio.
- Gure talentuak martxan jarri ahala, gure inguruan bizitza hobea da, onagoa, zoriontsuago egiten gaitu.

3. Unea. Adierazpena



5 Urratsa. Geure buruaren inguruan aurkitu ditugun gauzen artean, bat aukeratuko dugu: besteen esanetara jarri nahi dugun gaitasuna edo talentua. Garrantzitsua da mutiko eta neskato bakoitzak berea aukeratzea.

Katekistak hauek aipa ditzake, adibide erara:

- Alaia naiz eta nire inguruko pertsonak poz ditzaket nire izaera horrekin.
- Txirula jotzen dakit eta erdi aspertuta dauden pertsonak entretenitzeko gauza naiz.
- Eroapen handikoa naiz eta neba txikiak gogaitzen nauenean ere ez naiz haserretuko.
- Trebea naiz margotzen eta marrazkia oparituko diot amonari asko maite dudala jakin dezan.
- Pilotan oso ondo jokatzen dut eta ez dakien lagun bati irakatsiko diot nola jokatu.
- Arreta asko jartzen dut nire inguruan gertatzen denean eta, horregatik, nire esku dagoen guztia egingo dut inor bakarrik edo triste egon ez dadin.
- Oso ondo ulertzen ditut "matematikak", beraz, Mikeli etxeko lanak egiten lagunduko diot.
- Partxisera jolasten dakit, beraz, jolastorduan haur bakar bat be jolastu gabe gera ez dadin saiatuko naiz.
- Ordenatu samarra naizenez, gauzak ordenan izaten saiatuko naiz, aitik behin eta berriz errepika ez diezadan etxeko jostailuak batzeko.



6 Urratsa. Lorearen silueta duen (II. eranskina) koloretako kartulina bana emango diegu. Lorean, aukeratu eta besteen esanetara jarri nahi dugun talentua marraztu edo idatzi egingo dugu. Lorea etxera eramango dute gurasoei zer esan nahi duen azaltzeko. Gurasoek ariketa bera egingo dute parrokiako saioan.

4. Unea. Bilketa eta laburperna.



7. Urratsa. Saioan landutakoa jasotzeko, ondorengo galderak egingo dizkiegu:

- Zer egin dugu?
- Zer sentitu dugu?
- Zer ikasi dugu?



8. Urratsa. Amaitzeko, gure esker ona adieraziko dugu. Otoitz egingo dugu, gure gorputz osoaz baliatuz. Ahal izanez gero, egokia litzateke abestiaren bideoa ikustea eta haurrei dantza eginez (bideoko koreografia jarraituz) errezatzeko eskatzea.

**Abesteko, klikatu
irudian**



I. Eranskina

Barneratzeko ariketa: "Bidaia"

Erlaxatzeko musika

Enztuteko,
Klikatu irudian



PRESTAKETA Etzanda, ahal izanez gero, bestela lurrean eserita, hankak gurutzatuta eta eskuak belauen gainean pausatuta. Arnasketak egin, egoera lasaia eta erlaxatua lortu ahal izateko.

Begiak itxita, irudikapena egin. Astiro-astiro irakurriko dugu, argi eta garbi hitz eginez, eta mutiko eta neskatoei denbora emanaz, beren buruan gauzak irudika ditzaten.

Motibazioa: "Bada gure barrualdean leku bat non primeran aurki gaitzkeen; gainera, nahi dugunean itzul gaitzke bertara". Bidea erakutsiko dizuet. Jarraitu nire atzetik. Hots hau (txaloa izan daiteke, edo txistuak) entzutean, begiak itxi eta ez ireki berriz entzun arte.

HASIERA

"Irudikatu zeure buruan zuhaitz oso garaiez eta kolore guztietako loreez beteta dagoen basotik zoazela. Gelditu une batez eta bilatu gustuko duzun koloreko lorea. Aurkitu duzu? Hartu bat eta gorde poltsikoan.

Jarraitu aurrera, eta usain gozoa duten kolore akotako arrosez beteriko landa aurkituko duzu. Gogoan duzu usain hori? Gorde ezazu.

Bidean zoazela, haizeak aurpegia ferekatzen dizula eta zuhaitzen adarrak mugitzen dituela sentituko duzu. Zuhaitzetako batera hurbildu eta enborra ukituko duzu. Azala, latza da, ez du zerikusirik aurreko lorearekin.

Soinu polita iristen zaizu zuhaitzetako goialdetik. Txori baten abestia da. Orkestra dirudi. Gelditu eta une batez musika entzunez gozaten duzu.

Gero, gorantz begiratu eta zuri begira dagoen urtxintxa ikusten duzu. Bat-batean, zuhaitzetik behera doa eta enborraren zulo batean sartzen da. Handik atera eta zeure ondoan esertzen da. Isats handi eta dotorea du, aurpegi alai eta maitagarria. Gora eta behera mugitzen du muturra, irribarre egiten dizun bitartean. Zerbait gogorarazteko jaitsi dela zuhaitzetik diotsu. Harrituta begiratzen diozu, zer gogorazazi nahi dizun galdetuz. Bere hanka txikiarekin enborraren zuloa erakutsi eta belarria hurreratu eta entzuteko esaten dizu. Urtxintxak esandakoa egin eta zeure ahotsa entzuten duzu, esanez: "ausarta naiz", "adeitsua naiz", "alaia naiz", "pertsona ona naiz, adiskidea",... "esker onekoa naiz", "eskuzabala naiz"...

Urtxintxak, irribarretsu, batzuetan kanpotik nahiz barrutik dituzun gauza onak ahaztu egiten dituzula diotsu. Urtxintxak dioskun honetan pentsatuko dugu. Zeintzuk dira barrutik eta kanpotik ditudan gauza onak...? (etenaldia egingo dugu barnealdean gauza haez jabetzeko).

Sentsazio atsegina duzu. Arnasa sakon hartu eta zeuk dituzun gauza onetan pentsatzen jarraituko duzu.

Orain zorioneko sentitzen zara eta gustura zaude zeure buruarekin.

Urtxintxak begiratu eta irribarre egiten dizu. Nahi duzun guztietan bisita egitera joan zaitzkeela diotsu. Gogoratu enborraren barrualdean bizi dela".

Minutu batzuek musika jarrita edukiko dugu. Ondoren, hankak..., eskuak..., gorputza..., apurka-apurka mugitzeko esango diegu neska-mutikoei..., lurrean jarraituko dugu... Txalo edo txistua jo eta begiak irekitzeko eta altxatzeko esango diegu. Egokitzen joz gero, lurrean jarrai dezatela.

II. Eranskina

